

2009/09/05

Mila bisitari inguru jaso ditu Igartubeitik uztail eta abuztuan

Aurtengo udako azken opor hauetan, uztaila eta abuztuan, 988 bisitari jaso ditu Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoak, gehienak Kataluniatik etorritakoak izan direlarik, aurreko urtean bezala.

Bi hilabete hauek konparatuz, abuztuan ibili da bisitari kopuru gehiago uztaillean baino. Iazko abuztuan, 691 bisitari izan ziren eta aurten, 633 jaso ditu Igartubeitik. Uztailari dagokionez, iaz, banakako bisitariak 322 izan ziren eta aurten 355.

Bisitarien jatorriari dagokionez, aurten ere katalanak izan dira nagusi, %25arekin; ondoren, gipuzkoarrak % 22arekin. Estatutik, aipatzekoak dira balentziarrak, Zaragozatik etorritakoak eta baita madrildarrak eta Sevillakoak ere, Igartubeitiko arduradunek esandakoaren arabera. Atzeritarrei dagokionez, berriz, argentinarrak, Italiatik eta Belgikatik etorritakoak dira nabarmentzekoak, diote.

Ume taldeak

Bestalde, aurreko urteetan inguruko herrietako udalekuetako ume talde desberdinak hurbildu dira Igartubeitira, baina aurten ez dira bertara gerturatu aurrekonturik ez zutelako, nahiz eta museoak autobus zerbitzu doakoa eskaini, aipatzen dute museokoek.

Azkenik, Igartubeitikoek nabarmendu dute bisitari kopuru gehiena eguraldi kaskarragoa egiten zuenean hurbildu dela.